

Arriaga Antzokiak Valle-Inclan eta Barojaren lanak ekoiztuko ditu

BILBO

Bilboko Arriaga Udal Antzokia Pio Baroja eta Valle-Inclan-en testuetan oinarritutako muntaia dramatikoko baten prestakuntza ari da Espainiako hiru hirietako antzokirekin. Cordoba, Sevilla, Murtzia eta Bilboko udal antzokiak aurrera eramango duten proiektu hau Luis Maria Iturri Arriaga Antzokiko buruak zuzenduko du.

Koproduzio honen gidaria egiteko orduan, Barojaren 'El horroroso crimen de Peñaranda del Campo' eta Valle-Inclan-en 'La hija del capitán' lanak aukeratu dituzte, biak istorio berberean ezarritak. Hau izango da bi lan hauek batera antzeztu diren lehen aldia, baita lau antzoki hauek proiektu baten alde lan egiten duten lehen ere. Hasiera batean muntaia lau hiri hauetan plazaratuko den arren, aurrerantzean Espainia eta Hego Euskal Herriko beste udal antzokietara eramatea da antolatzaileen nahia.

Aretoen arteko elkarlaren barruan kokatu behar da halaber, Arriagak datorren astean aurkeztuko duen 'Cabaret' lana. Gasteak merketzea posible egiten duen bide honen bitartez Bilboko Udal Antzokiak, Kultur Olinpiadak eta Valentziako Antzoki Printzipalak Bartzelonan bi hilabete iraun, eta kritika eta ikusleen iritzia oso arrakastatsua utzi duen 'Cabaret' musikala ekoiztu dute.

Iruñeko Udalaren kultur politikak antzerkilarien haserrea piztu du

Antzerki taldeek ez dute emanaldi bakar bat egin aurtan hiriburuan

Nafarroako Antzertilari Elkarteak Iruñeko Udalaren kultur politika gaitzetsi egin du komunikatu baten bidez. Hamabi antzerki talde biltzen dituen elkarteak iazko emanaldiak ordaintzea eta antzerkiarekiko politika aldatzea eskatu dio Udalari.

I. IBARRA / IRUÑEA

Iruñeko Udala eta Antzertilari Elkartearen arteko liskarra ez da aurtengoa. Joan zen urtean antzerkilariek ez zuten Antzerkiaren Nazioarteko Eguna diru faltagatik ospatu. Egun horretan prentsaurrekoa eskaini zuten Nafarroako antzerkiaren egoera kaskarra agertu asmoz, diru falta itotzen ari baitzen taldeen asmo eta ekimen berriak. Izan ere, iaz Udalak murriztu egin zuen antzerki taldeekin urtero sinatzen duen hitzarmena, eta horretaz gain, hainbat baldintza jarri zien ikuskizunak taularatzeko orduan. Elkarteak hasieran ezezkoa eman zion hitzarmen horri, baina aukera hori edo ezer ez izanik, azkenean onartu egin zuten akordioa.

Oraindik, ordea, ez dute jaso iazko emanaldiegatik zor zaizkien 1.760.000 pezeta. Eta taldeen ustez okerragoa dena, aurtan ere proposamen bera egin diete. Nafarroako Antzertilari Elkarteak komunikatuaz azaldu duenez, «gure benetako arazoak konpontzen ez diren bitartean, hiriburuan kultura bizia dagoela erakusten saiatzen diren ekimenen kontra jarriko gara, hori guztiz faltsua baita. Irudia eta ez benetako kultura».

Elkarteak bere idazkian jakinarazi duenez, Iruñeko Udala da




'Don Juan Tenorio' obrak Nafarroako Antzerki Eskolaren haserrea bizitu egin du.

JOXE

Taldeek eskariak

1. Iruñeko Udalaren gaur egungo politika kulturala gaitzesten dugu, eta hemendik aurrera hiriaren mugimendu kulturalaren irudi faltsua sortu nahi duten ekintza guztien kontrako oposizio lana egingo dugula aurreratzen dugu, harik eta gure errealitate sozio-kulturalaren benetan erabakitzeke dauden gaiak konpontzen ez diren artean.
2. Iruñeko Udalak Nafarroako Antzertilari Elkarteari orain dela urtebetetik zor dion 1.760.000 pezeta (88.000 libera) zorra ordain diezaiola eskatzen dugu.
3. Beren eginbehar politiko eta

soziala bete ditzatela eskatu nahi diegu oposizioko alderdiei, Iruñeko Udaleko politika kultu-



Iruñeko Udalak ekoiztu duen 'Don Juan Tenorio' obrak bizia-gotu du antzerkilarien haserrea.

rala zehatz-mehatz kontrola dezaten.

4. Gure lanak behar duen ulertzea eta lankidetzak eskatu nahi diegu komunikabideei, eta herritarrei orokorrean, Iruñean eta Komunitate osoan antzerkiaren egoeraren normalizazioaren alde egin ditugun esfortzuek iritzi publikoaren aurrean laguntza izan dezaten. Agiria sinatu duten taldeak: Bajo la Arena, Gwynfynd, Ilargi, Kilarrak, Kollins Clown, La Trapeza, Popi-Zarratrako, Producciones T. Frankenstein, Scaramouche, Teatro Sambhu, T. E. N. - Pimpilinpauza, Trokolo.

Izan ere, Iruñeko Udalak Zorri-laren obra klasikoa zuzentzeko eskatu zion Valentin Redin nafarrari. Jokalari amateurrez gain, emanaldi honetan, Iruñeko hiru zinegotzik hartu dute parte.

«'Tenorio' ekoiztea irain egitea da»

I. I. / IRUÑEA

'Don Juan Tenorio' obraren taularatzeak lehendik piztuta zegoen sua bizitu egin du Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Antzertilari Elkartearen artean. Azken hauen artean dago Trokolo izeneko taldea eta bertako partaide den Isabel Aisak uste duenez, «'Tenorio' produzitu izana guri irain egitea da».

EGUNKARIA.— Iruñeko Udalak iaz oso hitzarmen kaskarra sinarazi zizuela diozue kaleratu duen komunikatuaz.

ISABEL AISA.— Bai, horrela izan zen. 1.700.000 pezeta hitzarmena proposatu zigun 32 ema-

naldi egiteko. Hasieran ezezkoa eman genion, ez bakarrik diru gutxi zelako, baldintza asko jarri zizkigulako baizik. Azkenean onartu egin behar izan genuen, bestela deus gabe geratuko baikin. Horren ondorioz Jus La Rocha eta Navarrieriako zentroetan besterik ezin genituen antzeztu gure lanak. Urte hasieran proposamen zehatza egin genien, auzoetan eta kultur etxeetan 27 emanaldi egin asmoz, baita Nafarroako antzerki jardunaldiak ere, baina duela egun gutxi jaso dugu erantzuna. Iazko proposamen bera egin digute.

EGUNKARIA.— Udalak produzitu duen 'Don Juan Tenorio-k'

zuen haserrea piztu du.

AISA.— Hala da. Ez dago dirurik Nafarroako taldeak kontratatze-ko edo beraiekin legezko hitzarmena sinatzeko, baina bederatzi milioi gastatzen dituzte 'Tenorioa' astebetetz taularatzeko. Guri irain egitea besterik ez da hori.

EGUNKARIA.— Valentin Redin 'Don Juan Tenorio-ren' zuzendariak esan zuenez nafar jokalariek guztiek izan dute bertan parte hartzeko aukera.

AISA.— Ez, hori ez da horrela izan. Profesionalen artean aktore bat besterik ez dute deitu.

EGUNKARIA.— Valentin Redinek berak esaten zuenez Udalararen ekimena kritikatzek ez du

zentzurik. Zuzendariaren ustez antzerkilariek eskatzen duten Zentro Dramatikoa egiteko aurreneko pausoa izan daiteke produzio hau.

AISA.— Ez gaude batera ados. Batzuk aurrekontu onak, lokal onak entseiatzeko eta antzerki ezin hobea dute lanak taularatzeko, eta gehienak berriz oztopoak besterik ez ditugu. Denak ez ditugu aukera berdinak. 'Don Juan Tenorio-k' abantaila guztiak izan ditu eta gu berriz ezin kobratu zor zaiguna. Udalak produzioak egitea ongi legoke, bestea ere zainduko balu eta bere egin beharra beteko balu. Zoritxarrez ez da horrela gertatzen Iruñean.



ALTZA
MONPAS
ORTZADAR
RIKARDO ARREGI

euskaltegiak

Irakasleak behar dira

Azaroan hasteko batzu eta Otsailetik aurrera besteak. Goizez arratsaldez eta gauez klaseak emateko.

OHARRA:

Beharrezkoa da EGA eta diplomatua/lizenziatua izatea.

Informazioa:

R. ARREGI; Sanchez Toca, 1

(943) 46 46 55